

EUSKARAZ HITZ EGIN NAHI AL DUZU?

URUMEAKO
Kronika

2017/08/23



Idatzi bilaketa hitza(k)

Bilatu

HERNANI

GOIZUETA

ARANO

EREÑOTZU

ASTIGARRAGA

Hemeroteka

Multimedia

Publizitatea

Bazkide egin

KOMUNITATEA



Ohiko kalejirarekin bukatu zuten atzo, Udalbatzaren Soka Dantza.

albiste//SANTIO JAIAK

Santa Anarekin agur, aurtengo jaiei!

Gaur bukatuko dira Astigarragako Santio jaiak, baina egun polita daukate aurretik.

ASTIGARRAGA

2017/07/26 00:00 Asteazkena

Lau egun atsedetik hartu gabe, eta festarako gogoz jarraitzen du Astigarragak, oraindik!

Beraz, giro ederrean agurtuko dituzte Santio jaiak gaur.

Santa Ana eguna dute, festetako azkenekoa. Egun berezia da astigarrarentzat, eta urteroko ekintzez betetakoa izango da: joaldunak, baserriko tresna egileen erakusketa, idi demak, bertsolariak, herri kirolak... Ikuskizun bereziak ere izango dira, zezensuzkoak azkeneko txinpartak askatu aurretik.

GAURKO EGITARAUA

09:30, Iturengo joaldunak eta Astigarragako Estangar

gurean.eus



PDF

URUMEA

Abuztuak 23

ESKELAK

HERNANI

*Fernando Ederra
Iglesias*

Agenda Bateratua

//Erabiltzaileak

trikitolariak, kalejiran.

11:30, Baserriko tresna egileen erakusketa (zurezko eta burdinezko tresnak, kaikuak, erroskilak...) eta sagardo dastaketa, Foru Plazan.

11:30, Idi demak, Foru Plazan. 1.500 kiloko harriarekin, 20 minutuko saioa egingo dute lau idi parek: Pagadizabal, Etxetxo, J.M. Elola eta Matxainen idiek.

12:00, Agin Laburu eta Aitor Mendiluze bertsolariak, Foru Plazan. Goldeak antolatuta.

14:30, Bazkariak: **Santa Ana**ko bazkaria Rezola sagardoteagian, Goldeak antolatuta; eta Elkartasun bazkaria txosnan, Andoni Ollokiegi musikariak girotua.

18:00, Herri kirol jaialdia, Foru Plazan: eskualdeko herrien arteko desafioa (Errenteria, Hernani, Oiartzun eta Astigarraga), Alazne Etxaburua eta Irati Astondoa aizkolariak, eta Idoia Etxeberria harrijasotzailearen erakustaldia.

18:30, Go!azen, Joseba Barandiaran plazan. Telesail ospetsuko aktoreen laguntzarekin dantzaldia eta karaoke irekia, denboraldiko abestiekin.

19:00, Jimmy Muelles kantautorea, Gazte Asanbladaren txosnan.

19:00, Trikitilariak, Foru Plazan.

20:00, Berriketan ikuskizuna, flamenkoa eta txalaparta uztartuz, Askoa Etxebarrieta La Pulga flamenko dantzariarekin. Joseba Barandiaran Plazan.

22:00-00:00, Rockalean, Joseba Barandiaran plazan.

22:30, Zezensuzkoa, Joseba Barandiaran plazan.

Santio jaien balorazio bilera, bihar bertan

Udaletxean izango da festen balorazio bilera, 13:00etan hasita.

Gaur bukatuko dira Santio jaiak Astigarragan; eta gehiagorik itxaron gabe, bihar bertan egingo dute aurtengo festen balorazioa egiteko bilera.

Udaletxean jarri du zita, Astigarragako Udaleko Kultura eta Euskara sailak: udaletxeko batzar aretoan, eguerdiko 13:00etan hasita.

Puri-Purian

«Zorionez, eraso sexista ... (1)

Argia, tunelaren bukaera (3)

Urumeako gida



Komertzio bat bilatu

Bilatu



Gudari okindegia

Gosarietan eskaintza bereziak

Iragarki merkeak

Etxea salgai erdialdean, 94 m2, txoko eta baratzarekin.

Telefonoa: 675179804

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... (Agustindarren plaza, 4)

Telefonoa: 943332894

+ Ikusi

ARGAZKIAK



Atsegin dut 0

Txiokatu

Whatsapp

Emaila



Inprimitu

IRUZKINAK

Sentitzen dugu, erabiltzen ari zaren nabigatzailea ez da bateragarria bateragarria:

- [Firefox](#)
- [Chrome](#)
- [Internet Explorer 11+](#)
- [Safari](#)

gui

Noi

Ongi Et
Gorliz-
parte h

▶ HIRUKA



Astiga

ORAI
gur




Ziberse
prestak
"aitzine
Gipuzk

GUREA



Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin eg

Tweets por @KronikaNet



www.



Z

Zure domein

Gaur



23°

18°

Bihar



25°

19°

Etzi



24°

17°

[Aemet](#) eskaintako datuak

Azken argazkiak



Ergobiako Jaiak 2017



Goizuetako Fiestak - A...



Goizuetako Fiestak - A...



Goizuetako Fiestak - A...



Goizuetako Fiestak - A...



Goizuetako Fiestak - A...

Azken bideoak



Tolosa aizpaka txapeldun, Zestoako ...




«Urduri egongo naiz; hainbeste ...



Azkeneko bideoak, web orrian



Azkeneko bideoak, web orrian



Azkeneko bideoak, web orrian



Azkeneko bideoak, web orrian

ARGITARATZAILEA	ZEIN GARA	KONTAKTUA	TOKIKOM				
		Larramendi kalea 11 - Hernani 20120 Telefonoa: 943 33 08 99 / 688 660 714 E-maila: kronika@kronika.eus astigarraga@kronika.eus urumea@kronika.eus	 				
LAGUNTZAILEAK							
							DOBERA KRONIKA BAZKIDEAK

Legezko oharra